

Euskal Herriko Down Sindromea Fundazioa, Down sindromea, adimen urritasuna edota garapen ezgaitasuna duten eta euren familien bizi-kalitatea eta gizartean parte hartzea hobetzeko lan egiten duen Euskal Herriko Fundazioa da.

13 EUSKAL HERRIKO DOWN SINDROMEAK Fundazioarekin solasean:

-Nik batzuetan kopeta beltza jartzen dut eta haserre joaten naiz logelara.

-Ni ere bai.

-Nik batzuetan ez dut lanerako gogorik izaten eta eskakeatu egiten naiz.

-Ni ere bai!

-Niri besarkadak eta muxuak gustatzen zaizkit.

-Niri ere bai! Askok, asko asko!!

-Nire futbol-taldeak irabazten duenean poz pozik jartzen naiz.

-Ni ere bai!

-Behin maitemindu nintzen eta bihotzak tup tup tup egiten zidan.

-Bai, hori niri ere bai, egunero!

-Txokala! Berdinak gara!

-Berdinak gara.

-Berdinak gara...baina ez den-denean! Zuk irribarre gehiago egiten duzu nik baino.

-Bai.

-Ikasi behar nuke. Zuretzat zer da irribarre?

-Zer da alboka? Eta ostadarra sartzen denean uretan?

-Uretan sartzen denean ostadarra? Uretan sartzen den ostadarra irribarre da?

-Bai

-Jontxo.

Euskal Herriko Down Sindromea Fundaziotik, Down sindromea duten pertsonak gizartean bere lekua izan dezaten ari gara lanean. Berdinak gara... nahiz eta batzuk irribarre maizago egiten duten.



14 HOGEITABIRA

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Andoni Egaña

Ahotsak, perkusioa, saxoak: Motxila 21

Maitemin habi den gondola bat veneciarra
Enarak, alboka....dantzatzen den sehaska zaharra.
Uretan sartu den buruz beherako ostadarra
Hori eta gehiago ez ote da gure irribarra?

Sakelekotik mezuak bidaltzen ditudanean
Jendea "emoti" faltaz harritzen da gehiengan.
Baina irribarra zertan jarri?
Irribarra gu geu gara sarri
Barnean!

Maitemin habi den gondola bat veneciarra
Enarak, alboka....dantzatzen den sehaska zaharra.
Uretan sartu den buruz beherako ostadarra
Hori eta gehiago ez ote da gure irribarra?

Hogeitabatgarrenean, katigatuarren tira...
Ikasi dugu zer-nola iritsi hogeitabira.
Ez gara hain ahulak, ez nahasi
Gaur ere ez al dugu irabazi?
Partida!

Uretan sartu den buruz beherako ostadarra
Hori eta gehiago ez ote da gure irribarra?